

Aurkibidea



1 / 03 O. **III Kongresua Euskadi Minbiziaren Aurka**

2 / 05 O. Emaitzak

Bertaratzea
Komunikazioa

3 / 09 O. Ebaluazioa eta asebetetzea

Bertaratutako pertsonen balorazioa egindako
jarduerei buruz
Balorazio orokorra
Proposamen eta gai berriak. Pertsona
gehiagorengana iristea.
Elkarrizketa-mahaietako hizlari eta partaideen
balorazioa

4 / P. 16 Babesleak eta laguntzaileak

5 / P. 18 Gastuen azterketa

6 / P. 19 Ondorioak, ikaskuntzak eta erronkak

1. Euskadi Minbiziaren Aurka III. Kongresua

Minbiziaren Aurkako Elkarteak pazienteentzat antolatzen dituen kongresuak pazienteei eta senideei arreta emateko zerbitzuen zorroan sartzen dira. Hala, Elkartearen misio gakoa osatzen dute. Kongresuak oinarrizko lau printzipiotan antolatzen dira:

- Ukitutako pertsonen informazioa eta ezagutza sustatzea eta pertsona horiek ahalduntzea.
- Minbizia normalizatzea, gaixotasunari buruz era irekian hitz egiteko aukerak emanez.
- Topaketa eta partaidetzarako espazioa eskaintzea prozesu onkologiko batetik pasatu diren edo pasatzen ari diren pertsoneri, beren inguruko pertsoneri, profesionalei eta bidelagun garenei, nahiz minbiziaren inguruko bizipenak eta esperientziak partekatzeko interesa duen pertsona orori.
Horregatik, kongresuek minbizia duten pazienteen elkarten partaidetza ere aurreikusten dute, berariaz, kasuan kasuko lurralde-eremuan lankidetzak eta eztabaidarako espazio komun bat sustatze aldera.
- Etengabe hobetzea: garrantzitsua da bertaratutako pertsonen ebaluazio bat egitea antolatu diren jardueren gainean, hurrengo edizioak hobetu ahal izateko eta Elkarteko erabiltzaileei eta minbizia duten pertsoneri laguntzeko proiektu eta programa berriak landu ahal izateko.

Euskadi Minbiziaren Aurka kongresuaren 1. edizioa 2018an egin zen, Kurtsaalen (Donostia). Bigarrena 2021eko azaroaren 28an izan zen, Gasteizko Europa Jauregian. III. Kongresu hau Bilbon izan da, Bizkaia Aretoan, 2024ko otsailaren 22an. Hala, doako espazio bat eskaini da, minbizi duten pertsonak ahalduntzeko, tabuak hausteko, esperientziak eta informazioa trukatzeko, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin kohesioa eta aliantzak bilatzeko, helburu berbera baitugu denok: pazientearen ondoan egotea.

Ekitaldia goizez egin zen, lanegun batean (osteguna). Bertan, hiru elkarrizketa-mahai eta 14 partaidetza-tailer antolatu ziren, eta, partaidetzan oinarrituta eta minbizidun pertsonen eta beren senideen ahotsa protagonista bihurtuta, arlo emozionalak zein klinikoak landu ziren, gai orokorretatik zehatzenetara. Hona hemen ekitaldiaren **programazioa**:

| | |
|---------------|---|
| 8:30 – 9:30 | Ateen irekiera eta akreditazioak |
| 09:30 – 10:00 | Ongietorria eta irekiera instituzionala |
| 10:00 – 10:30 | Inaugurazio-hitzaldia. Minbizia humanizatu: egin dezagun elkarrekin Jose Martin Urrialde irakaslea. Humans Fundazioko lehendakariordea |
| 10:30 – 11:00 | Atsedena-kafea |

- 11:15 – 12:15 7 tailer eta 2 elkarrizketa-mahai, aukeran:
- Mina arindu eta sufrimenduan laguntzea
 - Nire sexualitatea berraurkitzen
 - Bizi-bizi minbiziarekin. Posible da hazten jarraitzea?
 - Ariketa fisikoa: gazteentzako osasun tresna
 - Aurretiazko borondateen agiria. Zer jakin behar dut?
 - Dragón Cáncer. Emakumeak eta minbizia, lehen pertsonan
 - Nire gorputz berria: bigarren mailako linfedema
 - Elkarrizketa-mahaiak. Minbiziaren ikerketa: laborategitik pazientearengana. (30'). Ni, senidea ('30)
- 12:30 – 13:30 7 tailer eta elkarrizketa-mahai 1, aukeran:
- Ahanztura onkologikorako eskubidea. Diskriminazioa amaitu arte
 - Minbiziaren tratamenduen egungo eta etorkizuneko garapena
 - Normaliza dezagun ostomizatutako pertsonen eta beren familien bizitza
 - Zelan izan harreman errazak une familiar zailetan?
 - Ariketa fisikoa: oztopoak gainditzeko gakoa
 - Paziente onkohematologikoaren zaintza eta autozaintza emozionala
 - Artea eta ongizatea
 - Elkarrizketa-mahaia: Beti zaindu daiteke
- 13:45 – 14:15 Jardunaldiaren hausnarketak eta kontakizun grafikoa
- 14:15 – 14:20 Amaiera, paziente baten eskutik
- 14:20 – 14:30 Musika. En Tol Sarmiento (ETS)

Kongresu honen antolatzaileak izan dira, batetik, batzorde zientifiko bat, gobernu-organoko 8 kidek eta EAeko hiru elkartetako 5 profesionalak osatua, eta, bestetik, batzorde tekniko bat, Minbiziaren Aurkako Bizkaiko Elkarteko arlo desberdinetako 12 kidek osatua, tartean presidenteordea, kudeatzailea, pazientea eta senideentzako arreta, boluntarioak, lurralde-garapena, prebentzioa eta informazioa, jasangarritasuna eta administrazioa.

Ekitaldiaren egunean bertan, Minbiziaren Aurkako Elkarteko pertsona hauek parte hartu zuten antolakuntza-lanetan

- **9** boluntario hiru probintzietako gobernu-organoetatik
(3 Arabatik, 5 Bizkaitik eta 1 Gipuzkoatik)
- **32** pertsona boluntario-taldetik
- **25** profesional Bizkaiko egoitza

2. Emaidzak

2.1. Bertaratzea


Euskadi Minbiziaren Aurka kongresuaren III. edizioan izena emateko epea azaroaren 22an zabaldu zen, hau da, ekitaldia baino 3 hilabete lehenago. Izen-emateak online egin ziren, horretarako sortutako web-orri batean. Izena emateko unean, bertaratuek tailer eta elkarrizketa-mahaien artean hautatu zuten. Otsailaren hasieran, aforoa beteta, itxaron-zerrendan sartzeko aukera eman zen.



2.1.1. Bertaratzea, oro har


Kongresu honetan 454 pertsonak eman zuten izena baina, azkenean, egunean bertan **391 pertsona** hurreratu ziren. Hau da, bertaratzea % 86,12koa izan zen. Asistentzia horrek edukiera osoaren % 90,30 da.

Hona hemen bertaratu ziren pertsonen profila:




Minbizia duten pertsonen eta beren senideen partaidetza 178 pertsonakoa izan zen, hau da, guztien artean % **45,52**. Inskribatu ziren baina bertaratu ez ziren pertsonen % 62 profil horretakoak izan ziren (pazienteak eta senideak).

Bertaratzea generoaren arabera aztertzen badugu, emakumeak % 79,54 izan ziren eta gizonak % 20,46.



Gainera, 382 pertsonaren (bertaratuen % 97,70) bizilekua zein probintzian dagoen ere badakigu. Hona hemen:



2.1.2. Tailerretara bertaratutakoak

Tailerretara bertaratutakoen artean % 42,68 pazienteak izan dira, % 11,96 senideak, % 5,32 boluntarioak, % 37,64 profesional soziosanitarioak, ikertzaileak eta minbiziaren aurkako erakundeetako pertsonak, % 1,96 erakunde kolaboratzaile edo babesleetako ordezkariak, eta % 1,85 beste batzuk.

Erantsitako agirian, tailer bakoitzeko bertaratzea ageri da, akreditazioen arabera, generoa eta partaidearen profila bereizita.

2.1.3. Pazienteen elkarteak

Kongresu honetan minbizia duten pertsonen elkarten partaidetza oso garrantzitsua da, lankidetzeta, hausnarketa eta eztabaidarako espazio komun bat sustatzen baitu. EAEn minbiziaren aurka aritzen diren 20 elkarte daude, lurralde-eremuen arabera honela banatuta:

- 2 elkartek dute ordezkari-tza estatuan
ASACO eta Asociación de Cáncer de Mama Metastásico
- 2 elkarte dira autonomia-erkidego mailakoak
Euskoaldelprise eta Umeeekin
- 4 daude Araban
Asamma, Aspanafoa, Asoc. de Laringectomizados eta Minbiziaren Aurka Araban
- 7 Bizkaian
Acambi, Aspanovas, Minbiziaren Aurka Bizkaian, La Cuadri del Hospi, Laringectomizados, Ostomizados Argia eta Pausoz Pauso
- 5 Gipuzkoan
Asgicer, Aspanogi, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan, Iñurri eta Katxalin

Elkarte horien partaidetzan inplikazio-maila desberdinak antzeman dira:

9 elkartek aktiboki parte hartu zuten tailerretan eta elkarrizketa-mahaietan. 7 elkarte izan ziren tailerren gidari eta 2k eman zituzten lekukotzak elkarrizketa-mahaietan.

| | | |
|--|--|---------------------|
| ASACO | Nazionala | Elkarrizketa-mahaia |
| Asociación Cáncer de Mama Metastásico | Nazionala | Elkarrizketa-mahaia |
| Minbiziaren Aurkako Bizkaiko Elkarte | Bizkaia (Nazionala) | Tailerra |
| Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarte | Gipuzkoa (Nazionala) | 2 tailer |
| Argia Ostomizados | Bizkaia | Tailerra |
| Euskoaldelprise | Autonomia-erkidegoa | Tailerra |
| Iñurri | Gipuzkoa | Tailerra |
| Pausoz Pauso | Bizkaia | Tailerra |
| Umeeekin | Autonomia-erkidegoa <i>Horren barruan probintziako hiru elkarte daude (Aspanafoa, Aspanogi eta Aspanovas)</i> | Tailerra |

14 elkartek parte hartu zuten promozio-bideoan, eta Kongresuaren berri emateko konpromisoa hartu zuten.

10 elkarte hurbildu ziren otsailaren 22an Bizkaia Aretora. Aipatutako horiez gain, Kongresuaren edukiaren parte aktibo moduan bertaratu ziren ACAMBiko (Bizkaia) ordezkariak.

2.2. Komunikazioa

2.2.1. Komunikabideak

Euskadi Minbiziaren Aurka kongresuaren III. edizioaren berri emateko lanak 2023ko abenduan hasi eta 2024ko martxoan amaitu ziren. Zabalkundea bi fasetan garatu zen. Lehen fasea, kongresura izena emateko aldian. Bigarrena, ekitaldiaren aurreko asteetan eta egunean bertan, komunikabideei Bizkaia Aretotik ekitaldia estaltzeko deialdia eginez.

Guztira, 202 agerraldi egin dira komunikabideetan.



202 agerraldi, horietako 25 euskaraz.



Digitala: 22 albiste/elkarrizketa + 9 banner



Telebista: 3 elkarrizketa/albiste



Irratia: 9 elkarrizketa irratian + 153 iragarki



Prensa: 4 elkarrizketa/albiste + 2 faldoi

2.2.2. Sare sozialak

Sare sozialetako argitalpenak azaroaren 22an hasi ziren, web-orrian izena emateko epea zabaltzean. Astero egin ziren argitalpenak, asteazkenetan, Instagram eta Facebooken, abenduaren 22an eta urtarrilaren 22an salbu (atzerako kontaketa moduan ezarri ziren).

Guztira 28 argitalpen egin genituen (14 sare sozial bakoitzean) ekitaldia baino lehen, tailer eta elkarrizketa-mahaietako gaiak, Bizkaia Aretora joateko moduak eta izena emateko gogorarazpenak hizpide. Kongresuaren ostean, 6 argitalpen programatu ziren (3 saretik), irudiak eta esker onak helarazteko. 2024an zehar, hilero argitalpen bat egitea aurreikusten da, eguneko materialak partekatuzeko.

34 argitalpen horiek 12.165 kontutara iritsi ziren (horietako bat ere ez zen promozionatua). Hona hemen:



7.078 kontu




5.087 kontu

3. Ebaluazioa eta asebetetzea

Kongresuaren ebaluazioa bertaratuei emandako balorazio-galdetegi baten bidez egin zen. Kongresu hartan, paperezko formatua eman zen. Ondoren, digitalki bidali zen, ekitaldira bertaratu izanagatiko esker onarekin batera.

Galdetegia guztira **281 pertsonak** osatu dute, hau da, bertaratu ziren guztien artetik % 71,86k.

190 pertsonak adierazi dute profila galdetegia betetzean, honela banakatuta:




Galdetegian galdera hau bete duten pertsonen artean % 44 pazienteak eta senideak dira, hau da, bertaratuen ehunekoaren antzekoa da.


Generoari buruz galdetzean, 71 pertsonak erantzun dute: % 83,09 emakumeak izan dira eta % 16,91 gizonak. Emakumeen ehunekoa gizonena baino nabarmen handiagoa da, bat baitator bakoitzak kongresuan izandako partaidetzarekin.



Adinari buruzko datuak 66 pertsonak bete dituzte. Horien artean 35 eta 65 urte bitarteko pertsonen ehunekoa nabarmen altuagoa da beste adin-tarteena baino, % 73 baitira.



Gainera, jatorrizko probintziari buruzko informazioa eman dute 69 pertsonak. Galdera hori erantzun duten pertsonen % 77 bizkaitarrak dira. Beraz, inskribatutako pertsonen datuekin gertatu den bezala, horixe da jende gehien batu duen taldea.



3.1. Bertaratutako pertsonen balorazioa egindako jardueri buruz

Jarraian, egindako jardueren balorazioan lortutako emaitzak laburbilduko ditugu, 1etik 5erako eskalan:

| JARDUERA | ERANTZUN KOPURUA | GAIAREN INTERESA | HIZLARIEN KALITATEA |
|---|------------------|------------------|---------------------|
| Inaugurazio-hitzaldia | 256 | 4,22 | 4,24 |
| Elkarrizketa-mahaiak: Minbiziaren gaineko ikerketa; Ni, senidea | 68 | 4,69 | 4,64 |
| Mina arindu eta sufrimenduan laguntzea | 40 | 4,74 | 4,75 |
| Nire sexualitatea berraurkitzen | 37 | 4,62 | 4,72 |
| Bizi-bizi minbiziarekin. Posible da hazten jarraitzea? | 21 | 4,90 | 4,95 |
| Ariketa fisikoa: gazteentzako osasun tresna | 18 | 4,33 | 4,50 |
| Aurretiazko borondateak: Zer egin behar dut? | 20 | 4,85 | 4,95 |
| Dragon Cancer. Emakumeak eta minbizia lehen pertsonan | 18 | 4,61 | 4,72 |
| Nire gorputz berria: bigarren mailako linfedema | 11 | 4,90 | 4,66 |
| Elkarrizketa-mahaia: beti zaindu daiteke | 35 | 4,82 | 4,88 |
| Ahanttura onkologikorako eskubidea | 18 | 4,61 | 4,66 |
| Tratamenduen egungo eta etorkizuneko garapena | 28 | 4,50 | 4,71 |
| Normaliza dezagun ostomizatutako pertsonen eta beren familien bizitza | 7 | 5 | 5 |
| Harreman errazak egoera zailetan | 13 | 4,38 | 4,61 |
| Ariketa fisikoa: oztopoak gainditzeko gakoa | 41 | 4,82 | 4,82 |
| Paziente onkohematologikoaren zaintza eta autozaintza emozionala | 5 | 4,75 | 4,80 |
| Artea eta ongizatea | 9 | 4,66 | 4,66 |

Agirian, tailer bakoitzera bertaratu kideen zehaztasunak erantsi dira.

Galdetegietako datuetatik ondorioztatu daitekeenez, bertaratutako pertsonen asebetetzea nahiko koherentea eta irmoa da. Lehenik eta behin, inaugurazio-hitzaldiaren asebetetzeak eta kalitateak balorazio ona edo oso ona jaso dute pertsonen % 82ren eskutik. Hala, batez besteko puntukoa 4,23koa izan da 5etik.

Bestalde, elkarrizketa-mahaien eta tailerren galdetegien balorazioak emaitza horiek hobetu ditu. Erregistratutako pertsonen asebetetzea altua edo oso altua da erantzunen % 96,63an: Gainera, hizlarien kalitatea altua edo oso altua da erantzun duten pertsonen % 96,54rentzat.

Jarduerak formatu desberdinen arabera bananduz gero, inaugurazio-hitzaldiaren batez besteko balorazioa 4,22koa da; elkarrizketa-mahaiena 4,75ekoa da eta tailer guztien batezbestekoa 4,69koa. Hizlariak aztertzen baditugu, jarduerak bereizi gabe, balioa 4,74koa da.


Tailerretan hobetu beharreko alderdiei buruz galdetzean, guztira 119 iruzkin jaso dira (erantsitako agirian daude). Nabarmenena, egindako iruzkinen % 39,51n ageri baita, denborari buruzkoa da. Partaide askok nahiago zuketen denbora-tarteak luzeagoak balira, hala hobeto aprobetxatuko lituzketelako. Horrekin lotuta, hainbat iruzkinetan azaldu da (guztien artean % 9,24) partaideek beren esperientziak partekatzeko espazio gehiago eduki izana eskertuko luketela. % 7,56k tailerra praktikoagoa edo/eta partaideagoa izatea nahiago luke, eta ez hain teorikoa, jarraibide zehatzagoak jasota. Nabarmenezkoa da, bestalde, iruzkinen % 19,32 ez dela hobekuntza posiblei buruz mintzo; aitzitik, tailerren gaineko balorazio positiboak eta esker oneko mezuak adierazi ditu.

3.2. Balorazio orokorra

Azkenik, kongresuarekiko asebetetze orokorra baloratzeko eskatu zitzaaien partaideei, gehien gustatu zitzaiena zer izan zen eta hurrengo edizioan berriz ere parte hartuko luketen galdetuz. Horrez gain, bertaratutakoen ustez etorkizuneko edizioetan zein gai jorratu beharko lirakekeen galdetu zen.

3.2.1 Kongresuarekiko asebetetze-maila orokorra

265 pertsonak erantzun dute galdera hori. Horien artean % 50,94k eman diote puntuazio altuena (5), eta ehuneko hori % 71,69ra igo da, baldin eta 4tik gorako balorazio guztiak zenbatzen baditugu. Kongresuarekiko asebetetzearen **batezbesteko balorazioa 4,59koa** da.



3.2.2 Kongresuaren etorkizuneko edizioetan berriz parte hartzeko interesa

Galdera horren erantzuna irmoa da: pertsonen % 99k baieztatu du berriz ere parte hartuko lukeela. Ebaluazio honetan adierazle esanguratsuenetakoa da. Horren arabera, partaideek gure taldearengan konfiantza izango lukete berriro ere, prestakuntza jasotzeko eta esperientziak partekatzeko.

Partaideek kongresuaren alderdirik nabarmenei buruz egin dituzten iruzkinak eta jorratu beharreko gaiak buruz egin dituzten proposamenak eranskinetan jaso dira. Jarraian, ondorioak laburbilduko ditugu.

3.3. Proposamen eta gai berriak. Pertsona gehiagorengana iristea

Kongresuko alderdi azpimarragarrienei dagokienez, partaideen iritzia islatzen duten 158 iruzkin ditugu (erantsitako agirian jaso dira). Jarraian, datu horietatik ateratako ondorioak bildu dira, errepikatzen diren kategorietan bilduta, eta, betiere, hainbat kategorietako iritzia batzen dituzten iruzkinak daudela kontuan hartuta:

- Iruzkinen % 40,50ek tailerren gaiak, mahaien eta hizlarien kalitateari buruzko balorazioa jaso dute, hautatzeko aukera eta gaiak aniztasuna nabarmenduz alderdi positibo gisa.
- Egindako iruzkinen % 41,13k adierazi dute antolaketa ona izan dela, besteak beste irisgarritasuna eta azkartasuna bezalako alderdietan.
- % 13,29k kongresuko giroa azpimarratu du. Hala, antolatzaileen eta hizlarien inplikazioari eta profesional nahiz boluntario guztiarekin harremanetan sentitu duten enpatiarri eta adeigarritasunari buruzko ekarpenak sarri agertu dira.
- Iruzkinen % 10,75ean profil desberdinen partaidetza nabarmendu da (pazienteak, pazienteen elkarteak, boluntarioak, profesionalak...).

- Erantzunen % 8,86k azpimarratu du kongresua lagungarria izan dela bakardade sentsazioa apurtzeko. Horrekin lotuta, laguntasuna eta esperientziak partekatzeko gaitasuna izan dira gehien errepikatu diren alderdiak.
- Kasuen % 3,16an kaferako atsedena eta cateringeko aukerak nabarmendu dira.
- Azkenik, % 5,06k adierazi du amaiera-ekitaldia izan dela alderdi berezi eta esanguratsuenetakoa, eta % 1,26ren ustez espazioa bera da balorazio ona merezi duena.

Bestalde, galdetegiak egitean gure helburu bakarra ez da izan kongresuaren edukia eta metodologia baloratzea, baizik eta, horrez gain, bertaratuen interes-arlo berriak ezagutzea. Hartara, pertsona gehiagorengana iritsi nahi dugu, minbizi duten pertsona eta senide gehiagoren errealitatera hobeto egokitzen laguntzen dituzten profil edo/eta beharrak antzemanda. Horregatik, ataletan bilduta jaso ditugu 75 erantzunetan agertu zaizkigun gai-proposamenak.

- % 29,33ren aburuz, gaixotasunarekin lotutako gaietako buruzko informazio gehiago jasotzea interesgarria litzateke (minbizi motak, tratamendu medikoak eta entseguak, ikerketa, zaintza aringarriak, biziraupena...).
- % 13,3ren iritziz, gizarte arloko gaiak lirateke interesgarriak (gizarte-baliabideak, laneratzeko eta gizarteratzeko aholkularitza, administrazioarekiko harremanak eta abar).
- % 12k eskertuko luke elikadurari buruzko gaiak landuko balira (ohiturak, gaixotasunean zehar janaria prestatzeko moduak eta abar). % 8k gaixotasunaren prozesuan arreta orokorra lortzeko beste diziplina batzuk aipatu ditu, besteak beste fisioterapia, musika, ariketak edo memoria.
- % 10,66k azaldu ditu familia-harremanekin lotutako gaiak: komunikazioa, sexualitatea, emozioen kudeaketa, gaixotasunarekiko bizikidetzak eta abar.
- % 5,33k proposatu du gazteen onkologia lantzea, kolektibo horri zuzendutako espazio gutxi daudela sentitzen baitu eta bizitzako une horrek ezaugarri bereziak dituela ulertzen baitu (sexualitatea, ugalkortasuna, lana...).
- % 5,33k proposatu du partaideek beren prozesuan partaidetza handiagoa izateko moduak bilatzea.

Hori guzti hori dela eta, hona hemen erakunde gisa egiten dugun proposamena, kongresuaren prestaketa, diseinua, garapena eta berrikuspena aztertu ondoren:

- Zerbitzuen zorroa areagotzea, minbizi duten pertsonen eta beren senideei informazio eta tresna gehiago emateko eta, hala, prozesu onkologikoaren parte aktibo bihurtzeko (nutrizioa, ariketa fisikoa, sexualitatea, ugalkortasuna, laneratzeko eta gizarteratzeko baliabideak eta abar).
- Gure jardueretan beti esperientziak partekatzeko espazio bat sustatzea, parte hartzen duen bakarra profesionala den formatutik atera (hitzaldia) eta beste modu batzuk bilatuz, gaixotasunarekin bizi diren pertsonen esperientziak espazio propioa izan dezan, partaideen aberasgarri.
- Gaur egun elkartean hain presente ez dauden profiltentzako jarduerak sortzea, beren interesen eta beharren arabera. Horren adibide izan daitezke, besteak

beste, gazteak, gizonak edo minbizi ez hain komunak dituzten pertsonak. Gure konpromisoa, beraz, pertsona horiek erakundera hurbiltzeko jarduerak sortzea da.

- Elkartean minbizia duten pertsonen eta beren senideen partaidetza handiagoa sustatzen duten jarduerak programatzea, ikuspegia aldatuta, hau da, pazientea subjektu pasiboa izan beharrean bere prozesuaren subjektu aktibo bihurtuta.
- Gure zerbitzuak hedatzen jarraitzea, prozesu onkologikoan zehar laguntza behar duten pertsona guztiek ikusi eta aitortu gaitzaten.

3.4. Elkarrizketa-mahaietako hizlari eta partaideen balorazioa

Kongresuan 31 pertsonak doan parte hartu zuten: inauguraziorako hizlari bat, tailerren 21 dinamizatzaile, eta elkarrizketa-mahaietako 10 partaide (pertsona batek tailer bat dinamizatu zuen eta elkarrizketa-mahai batean parte hartu zuen).

Pertsona horietatik 13k (tailerren 5 bideratzaile eta elkarrizketa-mahaietako partaideen eta inaugurazio-ekitaldiko hizlarien arteko 8) erantzun zuten ebaluazio eta asebetetzearen galdetegia, kongresua egin osteko astean mezu elektronikoko bat bidalita. Galdetegian, honako alderdi hauek 1etik 5era baloratzeko eskatu zen:

| | |
|--|------|
| Ekitaldia baino lehen kongresua prestatzeko jasotako informazioa | 4,69 |
| Tailerra garatzeko edo elkarrizketa-mahaietan parte hartzeko erabili den espazioaren egokitasuna | 4,54 |
| Jarduera garatzeko egon diren baliabideak | 4,69 |
| Kongresuko antolakuntzaren eskutik jasotako arreta eta laguntza egunean bertan | 4,85 |

% 100k interesa edukiko luke berriz ere hizlari eta bideratzaile moduan parte hartzeko beste kongresu batean, eta guztiek erantzun dute kongresu honen beste edizio batean parte hartzeko gomendatuko liekeela senide edo pazienteei.

Azken galdera zabalik utzi zen, iradokizunak eta hobetzeko proposamenak egiteko. Jasotako erantzunen artean, 42k aipatu dute antolaketa ona izan dela eta zehaztasunak zaindu direla. Bestalde, 3 pertsonak proposatu dute kongresuaren iraupena handitzea, tailerrak eta elkarrizketa-mahaiak banatzeko, eta, hartara, bertaratuko pertsonak saio gehiagotara joan ahal izateko. Jasotako beste ideia batzuen artean aipatu dira online tailerrak egiteko aukera, onkologikoko profesional gehiagoren partaidetza, eta tailerren iraupen luzeagoa. Kongresuari amaiera emateaz arduratu zen pazienteak eta laguntzen aritu ziren boluntarioek ere aipamen berezi jaso dute.

4. Babesleak eta laguntzaileak

Doako kongresu hau bere osotasunean finantzatu ahal izan da hainbat lankidetzakordiori esker. Kolaborazioak urrea, zilarra eta brontzea izan dira, bakoitzak hainbat agerpen izan ditu kongresurako sortutako baliabideetan.

Ikuspen laburpena:

| | URREA | ZILARRA | BRONTZEA |
|---|---|-------------|----------|
| Aipamena eta esker ematea | Komunikabideei hedatzea (PO, irrati iragarkiak) | ● | |
| | Euskarri digitalak | ● | |
| | Hitzaldia Kongresuan zehar | ● | ● |
| Logoaren agerpena | Kartela | ● Nabarmena | ● |
| | Webgunea | ● Nabarmena | ● |
| | Txartela makina Metro Bilbao | ● | |
| | Interes-taldeentzako hedapen jarduerak | ● | |
| | Sareak | ● | ● |
| | Izen-emateen komunikazioa | ● | ● |
| | Programa digitala | ● | |
| | Aurkezpen bideoa | ● | ● |
| | Photocall | ● | |
| | Kongresuaren irudi iraunkorra | ● | ● |
| | Laburpen bideoa | ● | ● |
| | Agerpena aurkezpen bideoan | ● | |
| Hiztariekin, agintariekin eta etkarreekin egongo den luncharentzako 2 gonbidapen | ● | | |
| Enpresa laguntzaileak egindako promozioa (babesletza izatekotan) | ● | ● | |
| Laguntza €tik GORA | 5.000€ | 2.000€ | 500€ |

Babesleen eta laguntzaileen laburpen-irudia honako hau izan da:


Patrocinan



Colaboran



Laguntza gehienak erakunde pribatuenak izan dira, hurrengo grafikoan ikus daitezkeen bezala.



Diru-sarrerak honako hauek izan dira: 8 babesletza, dirulaguntza 1, 2 diru-emate eta 5 laguntza, bai gauzazko dohaintzetan, bai espazioen lagapenetan.

Kongresu egunean, 16 erakundeek %75ek laguntzaileen ordezkariak instituzionala izan du.




5. Gastuen azterketa

Kongresua egiteko gastuak hauek izan dira:

| | |
|----------------------|--------------------|
| Lekua | 2.923,80 € |
| Hizlariak | 3.408,99 € |
| Hedapena | 4.550,80 € |
| Errestaurazioa | 5.426,00 € |
| Materialak | 4.802,04 € |
| Idazkaritza teknikoa | 13.849,12 € |
| Guztira | 34.960,75 € |

Gastu horiek guztiak kongresua egiteko lortutako laguntza ekonomikoei esker ordaindu dira.



6. Ondorioak, ikaskuntzak eta erronkak

Ondorioak eta ikaskuntzak

Oro har, programari, pazientea erdigunean jartzen duen ikuspegiari, antolaketari eta komunikazioari esker, Euskadi Minbiziaren Aurka kongresuaren III. edizio honetan partaidetza altua izan da (bertaratuen artean % 46 pazienteak eta senideak izan dira) eta asebetetze maila handia lortu da (4,59/5).

Hona hemen alderdi gako nabarmenenak:

- Kongresuaren aurretik planifikatu eta programatzeko beharra (finantzaketa, edukia eta abar), urtebeteko aurrerapenaz.
- Kongresuaren denbora hartzaileen arabera egokitzeko beharra (pazienteak eta senideak) goizean, eta, autonomia-erkidegoko kongresuak bi urtean behin ezartzearen egokitasuna.
- Esku-hartzeak eta hizlari nahiz bideratzaileak egokiak zirela egiaztatze beharra, aldeztu aurretik, kongresuaren helburuak, metodologia eta edukiak era egokian garatzeko.
- Tailerren aniztasunaren egokitasuna, gai klinikoaren, ez klinikoaren, emozionalen eta ludikoaren arteko oreka, eta hizlarien kalitatea, minbiziaren duten pertsonen eta beren senideen beharrak kontuan hartuta.
- Elkarrizketa- eta moderazio-mahaietako partaideen aurretiazko prestaketaren garrantzia eta baja posibleetarako arrisku-plana.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren lankidetzaren altua, kongresuaren % 100 finantzatua izatea ahalbidetu duena.
- Denborak egokitzearen eta zeremoniaren gidaritzaren ona edukitzearen garrantzia, kongresua arrakastaz garatzen lagundu baitzuen.
- Boluntarioen lana indartzen eta balioesten jarraitzearen garrantzia, ezinbestekoa izan baitzen kongresuaren egiturako osagai desberdinetan laguntzeko, talde profesionalarekin batera, funtzionamendu orokor egokia sustatuz. Hautaketaren, aurretiazko prestakuntzaren eta inplikazioaren garrantzia, eguna era egokian garatzeko.
- Itxierako emozioa (ondorioak aurkeztuz, ilustratzailearekin batera, poema irakurri eta musikaz lagunduz), paziente eta senideentzako kongresu batean egokia den gisan, topaketarako espazioa dela ulertzen baita.

Hau da, bistan da minbiziaren duten pertsonen lekua geroz eta aktiboagoa aldarrikatzen dutela beren prozesu propioan, eta, horretarako, beren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko tresnak eta beren erabakiak hartu ahal izateko datuak bilatzen dituztela.

Horrenbestez, pazienteen elkarteek eskaintzen dituzten zerbitzuak geroz eta gehiago eta pertsonalizatuagoak izan behar dira. Kongresua Elkartearen nortasunaren erakusle izan zen, hau da, argi geratu zen minbiziaren eragina murrizteko eta pertsonen bizitzak hobetzeko lan egiten dugun profesional, boluntario eta pazienteek osatzen dugula, azken horiek izanik protagonistak.

Etorkizuneko kongresuetarako erronkak

- Gizonen eta gazteen partaidetza areagotzea eta kongresuko xede-kolektiboaren partaidetzari eustea (minbizidun pertsonak eta senideak).
- Minbiziaren aurkako beste elkarte batzuekin sareko lana indartzea.
- Xede-kolektiboaren beharrei erantzuteko gai izatea.
- Komunikabideetan eragina izatea, kongresua egin ondoren.
- Kongresuaren ebaluazio eta balorazioak aztertuta, nabarmentzekoa da garrantzitsua dela kongresuak bere helburuetan izan duen benetako eragina ebaluatzea, eta, horrez gain, ebaluazio-tresna hobetzea, kasu honetan konplexua izan baita datuak aztertu eta ondorioak ateratzea.
- Etorkizunean minbizia duten pertsonetikiko eta beren senideetikiko, boluntarioetikiko eta profesional soziosanitarioetikiko aitortza eta konpromisoa bermatzea.



900 100 036

asociacioncontraelcancer.es